

Erantzunak: 2.-B eta F.  
3-1-B, 2-C, 3-F, 4-E, 5-D, 6-A

1 **erronka**

A **airrebele**

2 **etxekalte**

B **aknorre**

3 **etorrera**

C **etlakexte**

4 **eskupeko**

D **aznukatserp**

5 **prestakuntza**

E **okepukse**

6 **eleberria**

F **arerrote**

# 3.

**Hitzak osatu.** Ezkerreko lerroan hitzak zuzen idatzita ageri dira, eta eskuinean, berriz, atzekoz aurrera. **Bilatu ezkerreko hitza eskuineko hitz zerrendan.**

## AZOKA

### Leire Elizegi

BIZIPOZA ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

«Elkarlanak gauza politak ekartzen ditu»

#### Zer jasotzen du CD/DVDak?

Hamabi elkarteren 11 kantu eta bideoklip sortu ditugu. Hamabi letragile, hamar abeslari eta lau musika taldek parte hartu dute guztira.

**Askotariko elkarteak dira: esklerosi anizkoitza dutenen Ademgi elkarte, Beroa Gipuzkoako harrera familien elkarte, EHko Down Sindrome fundazioa... Zein da helburua?**

Bizipoza elkartearen helburu bera du CD/DVDak: guztiontzat behar-ko lukeen herri inklusiboa eraikitzea, euskaratik eta euskaraz. Helburu hori lortzeko, 36 elkarte daude bertan, eta gai hauek guztiak gizarteratzen eta hainbat eskubide bete gabe daudela aldarrikatzen aritzen gara. Hamabi elkarteren kantu eta bideoklipak sortu ditugu, irudien, musikaren eta hitzen bidez haien errealitatea gizarteratzeko.

**Euskal sortzaileekin batera osatu duzue, elkarlanean.**

Hori da proiektuaren oinarria: Euskal Herriko kultur sortzaileak eta elkarteak elkarlanean aritzea. Bide naturala da, bai kulturak eta bai elkarteek dutelako funtzio sozial handi bat, eta norbanakook biak ditugulako beharrezko garatzeko, hezteko. Mundua ikusteko beste betaurreko batzuk ematen dizkigute.

**Bizipoza transmititzen dute bideo eta abestiek, ezta?**

Elkarlanak gauza politak ekartzen ditu. Elkarte horiek guztiek aitortza handi bat merezi dute egunerokoan egiten duten lan guztiagatik. Guretzat miresgarria da zer ja-

## CD/DVD-A

- ⦿ **Izenburua:** 'Bizipoza. Mundu berri bat guztiontzat 2'.
- ⦿ **Ekoizpena:** Bizipoza elkarte.
- ⦿ **Abesti kopurua:** 11 abesti.
- ⦿ **Musika:** Xabier Zabala.
- ⦿ **Ilustratzailea:** Eñaut Alartzaiguena.
- ⦿ **Prezioa:** 15 euro (13 euro BerrialaGUNek).



rrerarekin egiten duten. Bidea zaila izanagatik, jarrera baikorra eta eraikitzailea transmititzen dute, eta hori islatzen da bideoklipetan ere.

**Nolako harrera izaten ari da?**

Polita, egja esan. Sentitzen dugu proiektu honen eta elkartearen eza-gutza handitzen den heinean, harrerera, inplikazioa eta atxikimendua ere handitzen direla. Hori sentitu genuen aurreko urtean, eta orain-  
go honetan ere bai. Komunikabi-  
deekin ere oso bide polita egin genuen iaz, eta aurten ere hala izaten ari da. Oso pozik eta eskertuta gaude alde horretatik.

**Zer erronka ditu Bizipozak aurrera begira?**

Dagoeneko hasi gara lanean hurrengo urtean hirugarren CD/DVDa kaleratzeko, beste hamabi elkar-  
teren kantu eta bideoklipekin. Komunitate bat osatzen ari gara, eta horretan jarraitu nahi dugu. Ez delako elkartearen lana soilik guztion-  
tzat behar-ko lukeen herria eraikitzea, guztiona baizik. Komunitate hori sendotzen eta indartzen jarraitu nahi dugu. Gainera, gidak sortzen hasi gara, hezkuntza formalera, ez-formalera eta herrigintzara zuzenduta, azken urteetan hainbat gairi buruz sortu dugun materiala zabaltzeko.